

JUSTIFIKAZIO MEMORIA

- **Txosten - Proposamena**

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduaren 6. artikulua, "Ebaluazio etengabea eta errekerazioa", 8. apartatua ezartzen du: "Errekerazioa egiteko tresnak izanen dituzte irakasgai guztiek, azken ebaluazio arruntaz eta bereziaz gain". Foru agindu horrek Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen du. Beharrezkoa da aipatu foru agindua aldatzea, ikastetxeek hirugarren ebaluazioko errekerazioa azken ebaluazio arruntaren bidez egin ahal izan dezaten.

- **Entzunaldia eta parte-hartzea**

Urriaren leko 39/2015 Legearen 133. artikularen 4. apartatua xedatutakoaren arabera, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduaren aldaketaren xedek azken ebaluazio arruntan hirugarren ebaluazioko errekerazioari heldu nahi dioten ikastetxeei bakarrik eragiten dienez, ez du aurretiko kontsulta publikoaren tramiterik behar.

Halaber, dokumentu hau argitara ematen da Hezkuntzako Departamentuaren atarian (Gardentasuna):

<http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/arauak>

Hura tramitatzeko ardura duen erakundea Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua da, eta alegazioak helbide elektronikoen bidez egin ahalko dira:

soieduca@navarra.es

Era berean, Nafarroako Eskola Kontseiluak foru aginduaren proiektuari buruzko txostena egingen du. Organo horretan honako erakunde eta elkarteak ordezkaturuta daude:

- Izen handiko pertsonak
- Hezkuntza administrazioa
- Enpresaburuen elkarteak
- Toki entitateak
- Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularrak
- Erakunde sindikalak
- Unibertsitateak
- Nafarroako Parlamentua
- Ikastetxeen administrazioko eta zerbitzuetako langileak
- Ikastetxe pribatuetako irakasleak
- Ikastetxe publikoetako irakasleak
- Guraso elkarten federazioak
- Ikasleen elkarteak

Iruñean, 2017ko urriaren 5ean

ANTOLAMENDUAREN, ORIENTAZIOAREN ETA AUKERA BERDINTASUNAREN
ZERBITZUKO ZUZENDARIA



Ander Domblás García